

IKERTALENT 2026 DEIALDIA

Aukeratutako eta ezetsitako eskaeren behin-behineko zerrenda

Interes-adierazpenen memoriak jaso eta ebaluazioa egin ondoren, 2026/05/25ean argitaratutako jarraibideetan adierazitako prozeduraren arabera, Ikerketa Errektoreordetzak ERABAKI DU aukeratutako eta ezetsitako eskaeren behin-behineko zerrenda web-atarian argitaratzeko agintzea. Zerrenda hori l. eranskinean dago jasota, ikertzaile nagusiaren eta lortutako puntuazioaren arabera antolatuta.

BEHIN-BEHINEAN BAZTERTUAK IZAN DIREN ESKAERAK egin dituztenek 3 egun balioduneko epea izango dute, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita (2026ko ekainaren 17ra arte, egun hori barne), alegazioak aurkezteko.

Epe horren barruan, zure eskaerari dagokion ebaluazio-txostena eskatu ahal izango duzu, pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbidera idatziz, eta "Ikertalent 2026-Ebaluazioa" mezuaren gaian adierazita.

Alegazioak aurkeztuko dira interes-adierazpenak aurkezteko ezarritako bide berberetatik, hau da, EHUren egoitza elektronikoaren bidez (<https://egoitza.ehu.eus>). "ESKATU" eremuan "alegazioak-Ikertalent 2026" erreferentzia adierazi behar da eta "XEDE-UNITATEA" eremuan "Ikerketa Errektoreordetza - GGBB (U02000381)".

Leioan, 2026ko ekainaren 12an.

IKERKETARAKO GIZA BALIABIDEEN ATALA
Ikerketa Errektoreordetza